



Gorka Brit
futbol
jokalariarekin
solasean /2

Talde batetik bestera ibili da azken urteotan Gorka Brit lasarteoriarra. Aurtengo denboraldirako, Irungo Real Union taldeak beregan egin zuen apostu. Britek bere hasierari buruz hitz egin digu, baita erretirora arte Unionen jokatu nahi duela ere. •



Zubi tabernaren atea horrela aurkituko ditugu hemendik aurrera, itxita.

Zubi tabernak atea itxi ditu

Berrogeita hamar urteren ostean, erdiguneko tabernaren azken eguna izan zen atzokoa

Atzokoa egun berezia izan zen Jesus Mari Zubizarreta eta Isabel Urrestarazu senar-emaztearentzat. Urtetan Zubi tabernako barra atzean egon ostean, atzo erretiroa hartu zuten eta, tabernako atea betirako itxi. Lasarte-Oriako erdialdea aldatzen ikusi dute, hainbat gertaeren testigu izan dira. Ostiraleko TXINTXARRIKO zenbakian, beraie egunik elkarriketa izango duzue. •



Barrea eta algaralarunbatean

Antzezlan polita ikusi zen kulturutxean larunbat arratsan.

Helduen Hezkuntza zentroko Lan eta Lan Beti Lan antzerki taldeak ikuslegoa barre algaran murgiltzea lortu zuen *La Venganza de la Petra* antzezlanaren bidez.

Izan ere, Carlos Arniches antzerki-lanean, Petra eta bere senarraren arteko hikamikak modu xelebrea azaltzen dira. Merezitako txalo zaparrada handia jaso zuten bukaeran *Lan eta Lan Beti Lan* antzerki taldekoek. •

GIZARTEA/3

Jalguneko gazteek ederki igaro zuten larunbata arratsalde dardo txapelketan

HEZKUNTZA/5

Etorrinei zuzendutako ikastaroa antolatu du Munterri-AEK euskaltegiak



EGUNEKO MENUA



- RAZIOAK
- PLATER KONBINATUAK
- PINTXOAK
- BOKATAK
- SANDWICHAK
- ETXEKO POSTREAK
- GOSARIAK



KALE NAGUSIA 67 • Lasarte-Oria

TEL.: 943 372760

Kalitatea eta preziorik onena leku berean

Gorka Brit Irungo Real Union taldeko futbol jokalaria

‘Unionen erretiratzea espero dut’

Ixaso MORENO

Gorka Brit 31 urteko lasarte-riatarra dugu. Futbolari profesional hau Michelingo zelaian ikusi ahal izan genuen bere hastapenetan, eta orain, Real Union futbol taldearekin bigarren mailan dihardu. Profesional bezala urteak hainbat taldetan, eta hainbat lurraldetan igaro baditu ere, ez du inoiz bere jaioterria ahaztu. Zumaburun hasi zituen bere ikasketak, ondoren Kaskarron jarraitu eta herriko institutu- toan amaitu. Txikitatik futbole- an aritu zen Gorka herrian zehar, hainbat torneo eta txapelketetan. Futbola maitatzen ikasi zuen, eta txikitako desioa egi bihurtzea lortu zuen, futbolari profesional gisa jardun ahal izatea.

Nola izan ziren zure hastapenak futbole- n?

Nire haur garaian, eskola guz- tietan, plaza guztietan torneo ugari antolatzen ziren futbole- an aritzeko. Kirol hau prakti- katzeko aukera anitz zeuden, beraz, ikastolako orduak amaitu bezain laster, baloia zenuen hanka tartean, zure lagunekin maite zenuen kirol horretan ari- tzeko. Ni horrela hasi nintzen, pixkanaka-pixkanaka, lagune- kin herrian futbole- an arituz, eta azkenean, profesional bihurtze- ko aukera izan nuen.

Zer dela eta futbolarerik- o pasio hori?

Egia esaten badizut, ez dakit. Seguruena, komentatu dud- an haurtzaroko garai horretan fut- bola zen ikusten genuen kirola, ez ginen beste ezertan aritzen. Gainera, askotan Atotxara joa- ten ginen, Errealak ikustera, eta bertan bizi zen giro ikaragarri hori bizi eta barneratzen genuen, futbolarerik- o sentipen berezia eraginez. Igandeak egun zoragarriak ziren niretzat, Errealak Atotxan jolasten zuen, eta ikustera joaten nintzen. Aste osoa lagunekin futbole- an aritu, eta igandetan Atotxan. Azkenean, txikitako amets moduan handitzean Atotxan

jokatu ahal izatea genuen, eta sortzen zigun ilusio horrek fut- bola gehiago maitatzea eragi- ten zigun.

Ametsa egi bihurtu zen?

Jubenilekin, torneo batean, izan nuen Atotxan jokatzeko aukera. Ilusio handia egiten dit momentu hauetan gogoratzea bertan jokatu ahal izan nuela, nahiz eta torneo bateko finala izan, gaur egun existitzen ez delako, eta barnean zerbait berezia geratu zaidalako.

Zure hastapenak Mitxelingo kirol gunean izan ziren. Nola aldatu dira instalazioak harez geroztik?

Hasieran belarrezko zelai bat besterik ez zegoen, eta gainera, handienak bakarrik erabiltzen zuten. Txikienak, futbitoan, edota hondartzan aritu behar genuen torneoetan. Orain, beste kontu bat da, zelaia asko handitu dute, eta talde bat baino gehiago aritu daiteke fut- bolean. Onera egin du dudarik gabe.

Nola ikusten duzu mementu hauetan herriko futbolarien kalitatea?

Denbora dezente daramat herriko talde baten partidurik ikusi gabe. Kanpoan ibili nai- zenez ez dut denborarik izan. Hala ere, Lasarten betidanik egon eta antzeman da kirola- rien kalitatea, hori ezin da ukatu. Oroitzapen onak ditut nire hastapenetaz, herriko tal- deetan ibili nintzenez, garai haiek ez ditut inoiz ahaztuko.

Aurreko urtean, Sorian, Numancian, eta aurtan, Irunen, Real Unionen...

oraindik urte beteko kontratua zenuen Numancian, zer- gatik aldaketa? Aurreko urtean Real Unionek egindako denboraldia jarraitu nuen,

kategoriaz igotzea lortuko ote zuen esperoan, bertan jokatu ahal izateko. Play-off-a jokatu zutenean, eta bigarren mailara igotzea lortu zutenean, jarrerak elkartzeari ekin genion. Nik Unionen jokatzeko gogo han- dia nuen, eta eurek, interes handia zuten ni unionista bihurtzeko. Numanciarekin kontratua eten eta Irun aldera etorri nintzen.

Unionista izateko ideia hori azpimarratzen duzu behin eta berriz, baina zergatik hainbeste gogo?

Gipuzkoan dauden talde ugari- tan jokatu dut, baina Real Union geratzen zitzaidan. Kate- goria igoera lortu zutenean, ilu- sioz bete ninduen, eta are eta gehiago nigan pentsatu zute- nean. Nik betidanik esan ohi izan dut nire azken urtean Real Unionen pasa nahi nituela, eta ametsak, Atotxan jokatzeko beza- la, batzuetan egi bihurtzen dira. Helburu zehatza du talde hone- tan, Real Union lagundu, eta hainbeste kosta egin zaion kate- goria igoera hori mantendu eta bigarren mailan errotzen lagun- tzea. 45 urte dira union bigarren mailan ikusten ez genuela, eta momentu garrantzitsu honen parte izatea eronka handia da. Proiektu polita dago esku artean eta ilusioz betetzen nau.

Ligan sartu zenuen lehenengo golak, Real Unioni bigarren mailan bere lehenengo garaipena lortzen lagundu zion, zer sentitu zenuen?

Oso kontent jarri nintzen. Baina era berean, lasaitasun puntu bat ere lortu nuen. Aurrendenboraldian ez nuen golik sartzea



Gorka Brit Irungo Stadium Gal futbol zelaian aurtengo taldeko kamisetarekin

lortu, eta horrek eragiten zidan barnean. Gironan izan zen nire lehen gola unionioneko kami- setarekin, gol oso garrantzitsua.

Lortutako bigarren garaipenean ere, zure gola, talisman batean bihurtzen ari zara?

Golak eta garaipenak talde osoaren lana dira. Golak sartu ahal izateko taldekideak elkar- turik egon behar dira, aurrela- riak bakarrik ezingo genituzke golak sartu.

Real Union ondo jokatzan ari dela ezin da ukatu, hala ere, atean baloiak sartzea kostatzen ari zaio...

Kostatzen ari zaio bai. Baina ezin da ahaztu taldeak denbora behar duela bigarren maila ezagutu eta barneratzeko. Jokoa behintzat bada, futbola egiten dugu, eta jada hasi dira lehenengo ekarpenak iristen. Futbole- an garrantzitsuena golak sartzea da, ahalik eta puntu gehien lortzeko.

Ze partidu espero duzu gogo gehiagorekin?

Gipuzkoar derbia dudarik gabe. Nik uste oso giro ona sortuko dela, irundar jendea irrikitan dago. Ilusio handia

egiten dit Anoetan jokatzeko, behin bakarrik egon naiz ber- tan Osasunarekin. Eta aurtan espero errepikatzea, baina Unioneko kamiseta jantzita.

Errealekoa edo Unionista?

Unionista, baina aldi berean, bihotzean, errealezalea ere.

Zure erretiratzea Unionen?

Horrela izatea gustatuko litzai- dake. Zure onena eman ahal izateko gustura egon behar zara, eta esan beharra daukat, Irunen daramadana denbora labur honetan oso ondo sentitu naizela. Nire ustez, oso zorion- tsu izan naiteke hemen.

Gainera herrian, zure jendea- rekin...

Oso kontent nago herrira buel- tatu izanagatik. Hainbeste urte kanpoan igaro ondoren, ilusioz hartzen da. Ez duzu hemengo hutsunea somatzen kanpoan zauden arte. Baina azken finean, bizi-esperientziak lortu ditut, eta orain berriro herrian nago. Lasarte-Oria gustura nago, kontent, eta horrek ere, Unionen eman dezakedanean eragin dezake, kontent baldin bazaude, zure errendimenduan nabaritzen da. •



Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Guztira berrogei parte-hartzailek hartu zuten parte Also tabernan larunbat arratsaldean Jalgune taldeak ospatu zuen txapelketa kooperatiboan.

Dardo txapelketa kooperatiboa

TXINTXARRI

Larunbat arratsaldean ospatu zen Also tabernan Dardo Txapelketa Kooperatiboa Jalgune elkarteak antolatuta.

Jalgune Elkarteak eta Also Tabernak antolatzen dute Dardos Easoren laguntzarekin txapelketa hau, eta aurtengoa laugarren edizioa izan da. Parte hartzaileak Jalgune gazteak eta elkarteak ez

diren beste lasarteoriatarrek izan dira, guztira 40 jokalaririk. Txapelketa bikoteka jokatu zuten; Jalgunekoa ez den gazte bat Jalgunekoa den beste batekin. Txapelketaren helburua Jalgune gazteek Lasarte-Oriako gainontzeko gazteak ezagutzea, harremanetan jartzea eta denok batera arratsalde polita eta desberdin bat pasatzea.

Gainera txapelketak bere-

zitasun bat izaten du, Jalgune kide ez diren jokalariei oztupo txiki batzuk jartzeko zaizkie, adibidez, belauniko botatzea dardoa, edo abestuz, saltoka...

Aurtengo txapelketako parte-hartzaileetako bat munduko dardo txapelketan izandakoa da, baina larunbatean ez zuen irabazi. Lehenengo postua Marijo eta Kontxi Zubimendirentzat izan bai-

zen; bigarrena Javier Murillo eta Oscar Garciarentzat eta hirugarrena Carlos Blanco eta Javi Olarterentzat.

Antolatzaileen esanetan, oso-osoa giro ona izan zuten, elkarte kide ez direnak gogoz aritu ziren txapelketan, nahiz eta batzuk inoiz jokatu ez dardotara. Bide batez, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete txapelketan parte hartu zuten guztiei. •

IKASTAROA

Arrisku handiko manipulazailen karneta

Krisi garaian hezkuntzak duen garrantzia kontuan izanik eta herritarren eskaerei erantzunez, Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Sanitateko Departamentuarekin elkarlanean, ikastaro berri bat antolatu du arrisku handiko janari-manipulazailen karneta ateratzeko.

Ostalaritzako sektoreari zuzendua dagoen ikastaro hau azaroaren 17an eta 18an emango da, Villa Mirentxuko ekitaldi-aretoan, 16:00etatik 19:00etara.

Informazio gehiago jaso zeko edo ikastaroaren izena emateko, deitu 943 533 303 telefono zenbakira. •

LANAK

Ibai ondoko pasealekuaren itxiera Michelinen

Michelin enpresak martxan dituen kanalizatzeko lanak direla eta, gaurtik hasi eta bi asteetan zehar, ibai ondoko pasealekua itxi egingo da, kirol gunetik hasi eta enpresaren bukaerara arte. •

Pertsona adinduak zaintzeko ikastaroa Danok Kideren egoitzan

Azaroak 8, 22 eta 29an eta abenduak 13an, hau da, lau igandetan, 11:00ak eta 14:00ak bitartean, pertsona adinduak zaintzeko ikastaroa eskainiko da Danok Kide guraso elkartearen egoitzan.

Esperanza Latina GKEak eta Danok Kide elkarteak antolatutako hitzaldi sail hauetan Coro Dominguez, Lahar Elkargoko gerontologia eta neuropsikologian adituak pertsona adinduak zaintzen direnean hauek nola ulertu eta nola jardun azalduko du teoriatik hasi eta praktikara eramanez.

Lahar Elkargoa

Lahar Elkargoa irabazi-asmorik ez duen elkartea da. Hamar urteko esperientzia du eta, azpimarragarria da, esku-hartze psikosozialaren eremuan, adineko pertsonekin egin duen lana.

Besteak beste, ikerketa, aholkularitza eta zerbitzu kudeaketak egin ditu, baita eguneko arreta zentroetan eta erretiratuen zentro sozialetan esku-hartzeak ere.




Ikastaroa Danok kide eta Esperanza Latina elkarteak antolatua da.

Eta, honetaz gain, teknikari eta harretarako langileentzat, zein bolondres eta senideentzat prestakuntza ere eskaintzen du.

Azken eremu honetan sartzen da Danok Kideren egoitzan eskainiko den ikastaroa.

Informazioa

Ikastaroaren berri informazio gehiago eskuratzeko Danok Kide elkartera hurbiltzea edo 943 371 616 telefono zenbakira deitzea besterik ez duzue, astelehenetik ostegunera 10:30etatik 13:00etara. •



Arg:Wikimedia

Oinatzekin Donibane-Garazira

Donibane-Garazi ezagutu ala bisitatu nahi duzue? Azaroaren 8an, igandean, aukera paregabea Oinatz Taldearen eskutik.


Garaziko AEK euskaltegiko en laguntzaz bisita gidatua egingo da herritik, eta ondoren, nola ez, geldialditxo bat energiak berreskuratzeko.

Ondoren, Gerezien herrira, Itsasunera egingo du irteerak. Bertako aintzinako hilerri bereziak, estekak, eta Euskal nazio eskubideak gogoratzen dituen

monolitoa ere ikusteko aukera izango da.

Azkenik etxera bueltatu baino lehen, Atekgaitzera egingo da, bertako elezaharra ezagutzeko.

Parte hartu nahi dutenek, hilaren bosterarte, osteguna, izango dute aukera. Oraindik ez da zehaztu autobusez ala kobotzez egingo den irteera, parte hartzaile kopuruen arabera erabakiko baita. Irteera interesgarria, ez galdu aukera! •



Jende ugari bildu zen hilerrian galdutako senideei lore eskaintza egitera.

Domu Santu jendetsua

Aurten igandea egokitu da Santu Guztien Eguna eta eguraldi bikaina lagun, herritar ugari inguratu zen Illarraltzueta hilerrira kolore eta mota askotako lore sortak euren senditarteko eta lagunen hilobietara eramatera, gogoan dituztela adierazteko

Goiz-goizetik Lasarte-Oriatik Illarraltzueta hilerrirako bidea kotxez, zein oinezkoez bete zen, hauek guztiak gure artean ez dauden

pertsonei agur egitera joanak.

Hala ere, festa eguna izanik, bazegoen lanean zebilen norbait. Urtero legez, Ormazabal loradendako kideak hilerrirako atean egon ziren azken orduko eskariak bete nahian.

Kolonbarioa

Gainera, atzo udal hilerrira hurbildu zirenek, kolonbario berria ikusteko aukera izan zuten.

Errauntsentzako 96 horma-

hilobi ditu kolonbarioak eta 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera egongo da martxan.

Ana Urchueguia alkateak azaldu duenez, "azken urteotan ehorzketa kopurua jaitsi egin da eta errausketa kopurua %40 ingurukoa da."

Horren ondorioz, kolonbarioa eraiki da. Izan ere, alkatearen hitzetan, "gure helburua da egungo beharrei egokitzea eta herritarrei zerbitzu osoa eskaintzea". •



Arg. L-Oko Udala

Alkatea eta Martin Moreno Zerbitzuetako burua kolonbarioa bisitatzen.



Ettxerat elkarteari babesa. Hilero bezala, Euskal Presoen eta Errefuxiatuen senideek elkarretaratzea burutzen dute udaltxearen aurrean, hauek bizi duten dispertsio egoera salatzeko. Hilabete honetan ere, huts egin gabe hor izan dira herritar ugari. Hilabete honetako elkarretaratzea ordea, berezia izan da, Ettxerat elkarteari babesa eskaini nahi izan diote bildu diren herritarrak, elkartearen kontrako eraso eta mehatxuak bertan behera gera daitezzen eskatuz. •

Inprobisazioak nagusi Blues Fusionen kontzertuan

Giro ederra sortu zen ostira-lean kulturetxeko kafetegian Blues Fusion taldeari esker. Aretoetan gutxi entzuten diren folk eta country bezalako estilo, zuzenean ikusteko aukera paregabea izan zuten bertaratu ziren guztiak. Gainera, inprobisazioren bidez, jazz mundua ere hurbildu

zuten kafetegira. Era honetara, inprobisazioak egiteko dituzten erraztasun itzela erakutsi zuten. Orain dela gutxi sortu berri den taldea dugu Blues Fusion. Ignacio eta Grego dira proiektu honen bultzatzaileak, eta biak musika munduan ibilbide luzea dute. •



Etorkinentzat ikastaroa AEKn

■ Euskaraz ezer ez dakitenentzat izango da zerotik hasita. ■ Bi ordu emango dira arratsaldeaz astelehenetik ostegunera. ■ Bost lagun prest daude hasteko

Lasarte-Oriako Muntteri euskaltegiak ikastaro berezi bat emango du astelehene-tik ostegunera arratsaldeaz kanpotik etorritakoentzat. Euskaltegiko arduradunen ustez oso interesgarria da talde homogeen bat sortzea etorkin hauei gizartratzen laguntzeko. Jada badira bost gogo handia dutenak eta taldea zabalik dago euskaraz ikasten hasi nahi duten guztiei. Hain juxtu ezer ez dakitenen zuzendua dago, zerotik hasi-ko dira.

Korrikak aurten ongi etorria eman zien hain juxtu euskarara hurbildu diren kanpotarrei eta hauek batzuek interes handia dute Lasarte-Oriako Muntteri euskaltegian etorkinen talde bat sortzeko. Eta gogo hori kontuan izanaz, apustu bat egin du Euskaltegiak talde berri hau sortzeko: "merzei du kanpotarrek integartzeko era bat da, honelako aukerak ematen ez baldin bazaizkie atzean gelditzen dira, garai batean etorri ziren kanpotarrek gertatu zen bezala" adierazi digu Euskaltegiko irakasle batek.

Euskara ia zerotik ikasten ari diren bi talde badaude jada Muntteri euskaltegian baina soilik kanpotik etorritakoekin osatu nahi dute talde "homogeenoa". AEKko arduradunek adierazi digutenez, bertakoek gutxi jakin arren zerbaitei beti dakite; kanpokoei asko dakitela irudituta eta beldurtuta egiten dira. Hemengoek, aldiz, "nik ideiarik ere ez"



Muntteri euskaltegian 2008-2009 ikasturtean euskaraz lehen urratsak eman zituztenak, Oier irakaslearekin.

“ Gogo handia dute batzuek eta apustu egin du Muntterik kanpotarren talde hau sortzeko.

esanaz hurbiltzen dira euskaltegira, baina gutxi edo asko denek dakite zerbaitei.

Kanpotarrentzat zabalik

Kanpoko bost ikasle badituzte jada eta beste bi ikastaroa sortu zain daude ikasten hasteko. Urtero etortzen da ikasturtea hasi eta gero, bat edo beste euskaraz ikasi nahi duela eskatuz eta horiei deia egiten die Muntteri euskaltegiak ikasturte hasieratik izena eman dezaten eta ez aurreko

urtetan bezala jada martxan den talde batera sartu ikasturte erdian.

"Ahal bada" talde homogeen bat egin nahi du euskaltegiak, ikasle bakoitza toki batekoa bada ere. "Kanpokok" esaten denean edozein lekutakoa izan daiteke, magrebiar, hegoamerikar, andaluziar edo baita euskararekin lotura batera izan ez duen bertakoa ere.

Euskaltegian badaude kanpotar batzuek, besteak beste,

pakistandarra, argentinarra, Txilekoa, Baileareskoa, Gironakoa eta Suitzan jaiotako andaluziarra. Gehienak gogo handiarekin hurbildu dira euskaltegira eta interes handia dute euskaraz jarduteko.

Asteazken orduko ikastaroa izango da, astelehene-tik ostegunera emango da, egunero bi ordu. Orduetgia zehaztu gabe dago baina, arratsaldeko 16:00 eta 19:30 bitartean izango da. Kanpotarrek aukera bikaina dute euskaraz trebatzen joateko.

Muntteri euskaltegiak euskara ikasten ari diren hainbat ikasle mota ditu. Guztira aurten zazpi talde jada martxan dituzte eta beste batzuk proiektuan dira. •

Kirol Elkarteek diru-laguntza arruntak eskatzeko epea ireki da

Urtero egiten den moduan, Lasarte-Oriako Kirolen Udal Zerbitzuak, Kirol Elkarteek 2009ko diru-laguntza arruntan eskaerak aurkezteko epea ireki du.

Aurten berrikuntza bat dago gainera, Udalak laguntza hauen banaketa zuzenduko duten oinarriak onartu dituela.

Oinarriak

Lasarte-Oriako udaleko *Kirol-letako entitate eta elkarteetako ohiko diru-laguntzak emateko ordenantza erregulatuarekin* arabera, "laguntzak etekin-asmorik gabeko kirol elkarteetako emango zaie haien estruktura indartu eta garatzeko, betiere, duten proiektzioa eta interes-gatik, Lasarte-Oriako kirol-politikekin bat badatoz."

Eta onuradun izateko bete beharrik, besteak beste, bete behar fisikaletan egunean egotea, egoitza eta jarduerak nagusiak Lasarte-Oriako edukitzea edo denboraldi honetan, gutxienez maila federatuan talde bat edukitzea.

Eskaerak

Kirol elkarteek azaroaren 15a arte dute diru-laguntzen eskaera egiteko.

Udalaren Erregistroan aurkeztu behar dute eskabidea eta honekin batera hainbat agiri ere erantsi beharko dituzte.

Eskaera egiteko epe igarotakoan, 15 egun izango dira, akatsak zuzendu edo falta daitekeen dokumentazioa osatzeko.

Honen guztiaren berri, kirol elkarteetako helarazi zaien ordenantzan dute, baita Udalak dirulaguntza banatzeko orduan izango dituen irizpideak edo arauak ez betetzeko dakarren ondorioa ere. •

Amaraun LUDOTEKA

JOLASA BAINO GEHIAGO



TAILERRAK

ARGAZKIGINTZA,
TXONTXOGILOAK,
PAPIROFLEXIA,
SERIGRAFIA,
KARAOKE,
PIJAMA FESTA,
GINKANAK,...

ETA...
IRITEERAK !!!



Ttakun 943 371448

aisia@ttakun.com • www.ttakun.com



M^a Luz Jauregi Lasarte-Oriako osasun zentroko zuzendaria eta Rosa Gainza erizaina kolon minbiziari buruzko hitzaldian.

Kolon minbizia eta elikaduraren garrantzia

TXINTXARRI

Gure herrian kolon Minbiziari buruzko ikerketa martxan dago Osasun zentroan. Honen harira, XVII. Osasun jardunaldien barruan, Kolon minbizia prebenitzeko dietari buruzko hitzaldia eskaini zen ostegunean.

Herritar ugari bildu zen kultur etxeko hitzaldi aretoan Osasun zentroko zuzendari den Mary Luz Jauregi eta Rosa Gainza erizainaren azalpenak entzuterako.

Ikerketa

Jauregi doktoreak kolon minbiziari buruzko datuak eskaini zituen, hala nola, Estatuan eragin handia duen minbizi mota dela edo gaixotasun honen heriotza tasak.

Minbiziaren garapena eta lehenengo faseetan hartuz gero, osatzea errazago dela ere azaldu zuen.

“Sintomak izatean dator jendea Osasun zentrorera. Ondorioz, nahiz eta minbizia kendu, bizi iraupena ez da oso luzea,” aipatu zuen.

Horregatik, prebentzioaren eta ikerketen garrantzia azpimarratu.

Honetaz gain, Lasarte-Orian egiten ari den ikerketari buruzko informazioa eta datuak eskaini zituen Osasun zentroko zuzendariak.

“Honela, deitutakoen %45a parte hartu du odola goroitzean aurkitzeko proban eta horietatik %10ak positibo

eman dute,” adierazi zuen eta kolonoskopioari dagokionez, “deitutakoen %41ak egin du proba eta 83 pertsonen emaitzak ditugu.”

Era berean, jendeak parte hartzea animatu zuen. “kolonoskopia egin dutenek, ezagunei esan eta hauek parte hartzera animatu dira,” azpimarratu zuen.

Dieta

Baina diagnosiak garrantzitsua baldin bada ere, elikadura ere kontuan izateko gauza da.

Izan ere, Rosa Gainzak erizainak azaldu zuen antzerara, “ahoa hasten da liseriketa prozesua, gorputzak toxikoak eta behar ez duena kanpora botatzen du eta horren ondorioz, maskuriak eta kolonak asko sufritzen dute.”

Era honetra, dieta mediterranea egitea gomendatu zuen, “koipeetan baxua den dieta egin behar da. Fibra, fruta, barazkiak eta esnekiak hartu behar dira, arrainetan txitxarroa edo haragi txuriak, esate baterako.”

Haragi gorrien neurizko kontsumoa gomendatu zuen Gainza erizainak eta haragi keztatuak, oso eginak edo erreak ekidin behar direla ere azpimarratu zuen, baita elikagai minak ere.

Era berean, “azido folikoak, kaltzioak eta D bitaminak 50 urtetik aurrerako pertsona osasuntsuetan arriskua murriztu dezake,” aipatu zuen Gain-

zak. Ez ordea, koloneko minbizi izan duen seniderik baduzu.

Gainera, hauek elikagaien bidez hartu behar direla azpimarratu zuen eta ez osagarri edo medikamenduen bidez.

Honetaz gain, antioxidatzaileak, hau da, tomateak, piperrak, minbizi sortzen eraginik ez dutela aipatu zuen.

Kirola eta ohiturak

“Kirola egiteak arriskua murrizten du,” adierazi zuen eta gizentasuna arriskutsua da. “Gizonen kasuan, koipea sabelaldean kokatzen denez kolon minbizi izateko arrisku gehiago dute,” azpimarratu zuen.

Era berean, insulina eta glicemia tasa altuak dituztenek ere arrisku handia dute

Honela, alkoholak eta tabakoak alde batera utzi behar direla aipatu zuen. “Tabakoak gainera ondostean sortzen du minbizi,” azaldu zuen.

Eztabaida

Hitzaldia bukatzerakoan, herritarren galderak erantzun zituzten.

Gehienak ikerketari buruz izan ziren. Baina sentibilizazioa eta ikerketen buruzko eztabaida sortu zen.

Hala ere, gure herrian Osasun zentroaren datuen arabera, kolon minbiziaren sentibilizazioa handia dela azpimarratu zuten. •



Osasun Jardunaldien hasierari emateko udal ordezkariak hitz egin zuten.

Osasun jardunaldi arrakastatsuak

Lasarte-Oriako Osasun saileko buru den Rikardo Ortega eta Ana Urchueguia Lasarte-Oriako alkateak XVII. Osasun jardunaldiei hasiera eman zieten lehengo astelehenean, azaroaren 26an.

Aste betez, Manuel Lekuona Kultur etxeko hitzaldi aretora gerturatu direnek, osasun gaietan hezi eta gaixotasun berriei buruzko informazioa jaso dute. Izan ere, alkateak azpimarratu zuen bezala, “XVII edizio hauetan gaixotasunak garatu eta aldatu dira. Eta horren adibide ditugu teknologia berriei sortzen dituzten mendekotasunak.”

Era berean, udal ordezkariak eskerrak eman zituzten hizlari guztiei bere laguntza desinteresatua emateagatik.

Jardunaldien laburpena

Honela lehenengo jardunaldian, Alvaro Iruin Osakidetza Ospitaleko kanpoko Osasun Mentaleko zuzendaria eta Lasarte-Oriako Alkoholikoen Anonimo taldeko kide batek gizarte-

onartua dagoen menpekotasunari buruz hitz egin zuten, alkoholismoa.

Bigarren egunean, berriz, emakumeak pairatzen duten bularreko minbizi izan zuten hizpide, Txaro Beobide Katxalin elkarteko presidentek eta Lurdes Ariztizurri doktoreak.

Asteazkenean, herriko osasun zentroko zuzendariari M^a Luz Jauregi eta Rosa Gainza erizainak zaintzaileen papera aztertu zuten eta hauen bizi-kalitatea hobetzeko gomendioak eman zituzten.

Ostegunean, hizlari bikote berak, ondoan argitaratzen dugun Koloneko minbizi prebenitzeko dieta hitzaldia eskaini zuten.

Azkenik, gaur eguneko gaia jorratu zen teknologia berriei sortzen dituzten mendekotasunak. Ekintza Dasalud elkarteko ordezkaria den Aurelia Mateo eta elkarteko psikologoetako bat, Beatriz Alonsok nerabeek teknologia berrien gehiegizko erabilerarengatik dituzten arazoetaz hitz egin zuten. •



Asteartean, emakumeek pairatzen duten bularreko minbizi aztertu zen.

Egunero

Erakusketa

SAHARAK EMAKUME IZENA DU argazki erakusketa 3tik aurrera Mundu bat GKEren eskutik. Jalgin, egun osoan.

Erakusketa

EUSKAL FONDOAREN erakusketa bihartik aurrera Kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Asteazkena, 4

Diaporama

SAHARAKO MARATOLARI buruz arituko dira Jon Diaz, Goyo Eizagirre, Tomas Arruti eta Gorka Lasa. Jalgin, 21:30ean, EUSKARAZ

Osteguna, 5

Zinea

RADIO ENCUBIERTA filma Oken-do Zinema Taldearen eskutik. Sarrera, 4,15 euro. Kulturetxean, 21:30ean.

Ostirala, 6

Dantza

Lasarte-Oria Dantzan 2009 egitasmoaren barruan, TONDO REDONDO emanaldia. Sarrera, 6 euro. Kulturetxean, 20:00etan.



Pianoa bertsotan jarriko dute kulturetxean etzi

Ainhoa Ansak eta Jagoba Astiazaranek kontzertu bitxia eskainiko dute. Lasarte-Oriako Musika Eskolak antolatua duen ikuskizun honetan momentuan eskatutako kanta jendearen aurrean joko dute bi musikariek. Bertsolaritzan bezala, musikarekin ere inprobisatu daitekeela frogatu nahi dute. Ekimenaren helburua, euskal kantagintza bultzatzea da eta kanta zaharrak zein berriak entzuteko aukera izango da.

ASTEAZKENEAN, 4AN, 19:00ETAN
KULTURETXEAN
DOAN

Igandea, 8

Zinea

HARRY POTTER Y EL SECRETO DEL PRINCIPE haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ.

Astelehena, 9

Ipuin-kontalaria

PELO AÑORGA ipuin-kontalariaren Ipuinaren ordua saioa 4, 5, eta 6 urteko haurrentzat. Haurrak bakarrik egongo dira eta behin ipuina hasi eta gero ezingo da gelatik irten. Kulturetxeko haurren liburategian, 18:00etan, EUSKARAZ.

Asteazkena, 11

Diaporama

KROAZIA ETA BOSNIARI buruz arituko dira Maialen Goikoe-txea, Mikel Olaiz, Asier Gorostegi eta Naike Zumeta. Jalgin, 21:30ean, EUSKARAZ.

Ostirala, 13

Djen emanaldia

ROCKSTEADY SKA, Jamaikako musika ipiniko du bideo emanaldiaren ondoren. Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan.

Astearte, 17

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZA ipuin-kontalariaren Ipuinaren ordua saioa 7, 8, eta 9 urteko haurrentzat. Haurrak bakarrik egongo dira eta behin ipuina hasi eta gero ezingo da gelatik irten. Denak puntu-puntuari hasiko dira. Manuel Lekuona kulturetxeko haurren liburategian, 18:00etan, EUSKARAZ.

Asteazkena, 18

Hitzaldia

GIZAKIEN ARTEKO ERLAZIOA hitzaldia eskainiko du Helena San Pedrok, Nola hezi gure sema-alabak hitzaldi zikloaren barruan. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.

Diaporama

TXINA BIZIKLETAZ izeneko diaporama eskainiko du Aitzol Etxegoienek. Jalgi kafe-antzokian, 21:30ean, EUSKARAZ.

Ostirala, 20

Aurkezpena

VIII. MULTIMUSIKALAREN aurkezpena eta ondoren Petti eta Harramazkaren kontzertuak. Jalgin, 21:00etan.

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera

10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara



Manuel Lekuona kulturetxea
Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Buruzpe Guraso elkartearen Loteria

Sasoeta- Zumaburu herri ikastetxeko Buruzpe Guraso Elkarteak salgai dauka dagoeneko Gabonetako loteria. Eskuratzeko elkartetik pasa daiteke asteazkenetan 15:00etatik 16:30etara.

Aterpeko loteria

Aterpeak, Lasarte-Oriako merkatarien elkarteak, aurreko urteetan bezala Gabonetako loteria atera du. Loteria hartzeko interesa duten Aterpeko bazkideek, Zumaburuko Iturbe Oinetakoak (Maixa) dendetik pasa daitezela jasotzera. Zorte on guztiei!

Batxilergo tituluak

Lasarte-Oriako Institutuak jakin arazi nahi du 2008an bukatu zutenek, batxilergo tituluak jaso ditzaizkete goizeko 9:00etatik 13:00ak bitartean. Norberak jaso behar du, bestela nortasun

agiriaren fotokopiarekin jaso daiteke ere.

Marrazketa eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak antolatzen duen marrazketa eta margo eskolak urriaren 7an hasiko dira 18:30etik 20:30era. Oraindik plazak badaudenez, izena emateko aukera dago kulturetxeko 2. solairuan arratsalde 18:00etatik 19:00ak bitartean, astelehenetan, ostiraletan eta larunbat goizetan 09:30etik 11:30era.

Katxalin elkarte Loteria

Minbizi ginekologikoa edo bularreko minbizi izan duten emakumeek osatzen duten Katxalin Elkarteari lagundu nahi dioten herritarrek Eguberrietako Loteriaren partailetzak eros ditzaizkete, 3 eurotan eta 0,50 eurotako dohaintzarekin, Lasarte-Oriako KIUBen, 9:00etatik 13:00etara.

Dantzaren Lagunak taldea

Erketzek entsegu irekiak aurkeztu nahi ditu Dantzaren Lagunak taldearen bidez. 15 urtetik gorakoentzat daude bideratuak eta gabonek bitartean iparraldeko zenbait dantzak landuko dituzte. Beraz, plazan gogoarekin begira ez geratzeko, orain da zure aukera. Dagoeneko entsaioak hasi dira; asteartero izango dira arratsaldeko 20:00etan Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Zumaburuko eraikinean. Doan da eta parte hartzeko entsaioa azaldu besterik ez duzu, animatu!

Ostadar K.F.-ko Loteria

Ostadar Kirol Fundazioak Gabonetako Loteriako txartelak ditu salgai. Bakoitzak 2,5 euro balio ditu eta horietatik 0,50 euro elkartearentzat dira. Interesa duenak kirol elkarte-ko egoitzara hurbiltzea besterik ez du, Geltoki kaleko 25. zenbakira.

Ostadar K.F.-ko ordutegia

Ostadar K.F.-k jakin arazten du, elkarte-ko egoitza arratsalde 16:00etatik 20:00etara.

Igerileku txikia itxia

Haurtxoekin antolatu diren igeriketa ikastaroak baldintza egokietan garatu daitezten, larunbatetan, goizeko 10:30ak eta 11:00ak bitartean igerileku txikia erabiltzaile ororentzat itxita egongo da.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858

txintxarri@txintxarri.info

txintxarri@ttakun.com

Saharako Maratoia, elkartasuna eta kirola uztartzen dituen lasterketa

- Saharako Maratoiari buruzko diaporama eskainiko dute Jalgin azaroaren 4an, 21:30ean
- Maratoiari buruz informazioa ematez gain, hurrengo ediziorako izena ematea sustatu nahi dute

Nerea EIZAGIRRE

Otsailean Tomas Arruti eta Gorka Lasak Saharako Maratoian parte hartu zuten eta horren berri eman genuen TXINTXARRI aldizkarian. Egun, batetik bestera dabilta Maratoian berri eman eta hurrengo ediziorako ehun korrikalari edo herritar batu nahian. Horretarako, ekintza ezberdinak burutuko dituzte eta Lasarte-Orian bi izango dira. Bata larunbatean burutu zuten, Ostadarreko egoitzan prentsaurrekoa eskaini baitzuten eta bestea, azaroaren 4an egingo dute 21:30ean, Jalgi Kafe antzokian bidaien diaporama emanaldien barruan.

lazio esperientzia hain ona izanenez, aurten ere Saharako Maratoian parte hartzeko gogoekin ikusi ditugu Tomas Arruti eta Gorka Lasak haiekin bildu garenean.

“Hango esperientzi kristona izan zen. Kirola alde batera utzi eta Saharako egoera ezagutzera zoaz. Hango errealitatea ikustera,” aitortu digu Tomasek Maratoiari buruz galdetzerakoan.

“Esperientzia ezberdina da, basamortura joan eta bizi diren egoera ikustea. Ezer ez dagoe-la, miseria bizi direla... horrek harrapatzen zaitu eta berriro joateko gogoia sartzen zaizu.” esan digu Gorka Lasak eta honela jarraitu du, “eta horrek kontraesan bat sortzen du. Hemen guztia dugu eta han ez daukate ezer. Nire ustez bizi

beharreko esperientzia da.”

“Zein egoeratan dauden ikusten duzu. Eta gainera ez daukate ezer eta guztia eskaintzen dute,” adierazi du Tomasek.

Eta hango egoera politikoari buruz ere hitz egiten dute, “34 urte daramatate horrela bizitzen eta bertan jarraitzeko asmoa dute,” aipatzen du Lasak.

“Herrialdean konflikto bat dago eta orain gauzak mugituko direla dirudi, baina badaude interes pila ez konpontzeko,” dio Tomasek.

Diaporama

Herritarrek egoeraren berri izan dezaten Tkakunek antolatzen duen diaporama sortaren barruan otsailean bizi izandakoaren berri emango dute Tolosako Goyo Eizagirre eta Jon Diezen laguntzaz.

“Asmoa Sahararen egoeraren berri ematea da,” esan digu Tomasek.

Eta Lasak zera gaineratu du, “Goyo eta Jon 6 urte daramatate maratoian parte hartzen eta informazio asko daukate. Gu hasi berriak gara eta haien laguntza asko eskertzen dugu. Gozada bat da horrelako aukera izatea.”

Erronka berria

Honetaz gain, egun, beste erronka batean sartu dira biak. “Saharan ginel Euskal Herriko jende gehiagorekin batu ginen eta harreman estua dugu guztiok. Hemen elkartu eta bazkari baten ostean, buruari



Gorka Lasak, Tomas Arruti, Goyo Eizagirre eta Jon Diez bertako bi emakumerekin Saharako Maratoia bukatu ostean.

bueltak ematen sortu zen esku artean dugun erronka,” azaldu digu Tomasek. Eta Gorkak “batek proposamena egin zuen, eta, zergatik ez dugu hemen Bilbotik hegazkin bat antolatzen? Horretarako jendea behar da, ehun baietz Saharara,” zehaztu digu.

“Euskal Herrian erronka handiak daude kirol guztietan, baina Saharan kirol erronkaz gain, beste egoera berezi bat dago. Gure helburua da biak uztartzea eta Saharar herriarekiko elkartasun hori erakustea. Egoera horrek beste xarma ematen dio eta pixka bat horrek bultzatuta sartu gara erronka berri honetan,” gaineratu du Lasak.

Euskal Herrian zehar infor-

mazioa eman eta 100 pertsona lortzea da orain helburua, izan ere hori baita Loiutik hegaldia lortzeko gutxieneko kopurua. “Madriletik antolatzen denez, orain arte Barajasetik atera da hegaldia. Guk haiekin hitz egin dugu eta 100 pertsona lortzen badugu gure esku geratzen da hegaldia antolatzea,” azaldu du Tomasek.

Baikor agertu dira gainera kopuru hori lortuko duten ala ez galdetzean. “Iaz ezer jakin gabe 25 bildu baginen, aurten gehiago izan daitezke,” aipatu du Gorka Lasak.

Tomasek “positiboak gara, apustu handia da. Baina hegaldia Bilbotik ateratzen ez bada, Madrilgo komodina dugu, beraz, ez da inor klean geratzen,” adierazi digu.

Izena ematea

www.blogak.com/eusaharamarathon orrialdearen bidez egin beharko da izena ematea. “Madrildik bideratu diguten informazio guztia dago bertan gazteleraz eta euskaraz,” esan digu Tomasek.

Gorka Lasak baldintza ekonomikoari buruz hitz egin digu, “bidaiaren gastua hegaldia eta aste beteko egonaldia k 850 bat euro balio ditu. Madrilgo antolakuntzak, gainera, horietako 200 euro han egingo diren proiektuetara bideratzen ditu”.

Eta azpimarratu du, “Saharako Maratoi bezala saltzen da, baina beste aukera batzuk ere badaude. 5, 10, 21 eta 42 kilometrotako lasterketak

daude. Jendea askotan itsu egiten da, 42 kilometro ez ditue-lako egiten.”

Eta “honetaz gain ere, korrika egin nahi ez duenak ere aukera du joateko. Norbaitek hango egoera ikusi nahi duela eta maratoian parte hartzeko asmorik ez duela, lasai asko joan daitezke. Hemen 850 euro ordaintzen dituzu bidai osoarengatik, nahiz eta ez parte hartu lasterketan,” gaineratu du.

Epeari dagokionez, “denbora dago maratoira arte, baina antolakuntzari dagokionez, gauzak mugitu behar dira. Izan ere, izena ematea Madril-len urtarilaren bukaeran ixten da. Guk, hala ere, abendu bukaera arte itxarongo dugu, Madril-ekin guztia antolatuta eta hegaldiak lotzeko dugun epea baita,” azaldu digu Tomasek.

Prentsaurrekoa

Hau guztia, larunbatean Ostadarreko egoitzan eman zuten prentsaurrekoan azaldu zuten.

“Asmoa da Lasarte-Oria mailan, jendeari Saharan zer dagoen azaltzea da. Honela, kirolarekin lotura duten, Ostadar eta Indartuz-eko ordezkariak egongo dira, eta bestetik, elkartasunari dagokionez, Askapena, Komite Internazionalista eta Sahararen lagunak taldeko ordezkariak,” azaldu zigen Tomasek.

“Informazio guztia izan eta puntu horiek, Ostadar eta Indartuz, kontaktu bezala izatea ongi dator. Gainera, gu ere prest gaude kafetxoren bat hartzeko,” esan digute biak. •



Ekzerretik hasita, Ahmed Baba eta Ailem Eleimidi; Tomas Arruti, Goyo Eizagirre, Ostadarretik Itziar Carrasco; Indartuzetik Borja Apeztegia; Komite Internazionalistetik Jose Piñás eta Sahararen Lagunak taldeetik Txema Benito eta Salma prentsaurrekoan.